

15  
URTEURRENA

# ortzadar

Larunbata, 2013ko otsailaren 23a. 297 zenbakia

deia.com

**euskal kulturaren kolore guztiak**

## KONKISTA SOZIALA

Astra, Gernikako ama  
lantegi izandakoa,  
kulturgune bihurtu da

— 4-5. orrialdeak —

## METROKOADROKA

Leioako Kultur  
Maratilan agertuko  
dute beraien azken lana

— 2. orrialdea —









LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

saski-naski

## KRITIKA

## Bizitza moralaren hausnarrerako

TÍTULO: PAPER-FESTA

EGILEA: ANJEL LERTXUNDI

ARGITALETXEA: ALBERDANIA



ARITZ GALARRAGA

**E**ZINBESTEAN *Eskarmentuaren paperak* hura aipatu behar dugu *Paper-festa* hau hartzen badugu mintzagai. Hasteko, lehenaren ahizpa gisa aurkeztu digutelako bigarrena. Ez bikia, ordea: helburu bera izanagatik, han hausnarketaren bidea zen nagusi, eta kontakizunaren bidea aukeratu du hemen Anjel Lertxundi egileak. Baina biek ere, esan digutenaren arabera, autobiografia sentimental eta literarioa dute jomuga. Ezinbestean, beraz, ekarri behar dugu hona 2010eko saiakera arloko Espainiako Sari Nazionala –eta oraindik harritu eta poztu egiten naiz sariketa harekin–; eta ezinbestean egin behar dugu *Paper-festa*-rekin konparazioa. Lehenengo diferentzia argia da: azken horretan ez dela agertzen Lertxundi haurra portadan, baizik eta Buster Keaton aktorea, *The General* filman jokatzeko Johnnie Grayren papera. Ez, ez barrerik egin, ez da txantxa, ezpada asmoen adierazpena: *Eskarmentuaren paperak* ez-fikzioaren mugetan kokatzen zitzagun bezala –hori onartuta autobiografiarik egia den ere fikziotzat hartzen duela batek baino gehiagok–, fikzioarekin harremanetan arituko zaigu *Paper-festa*. Nahiz gero egia

den batetik bestera egiten dutela biek batzuetan sartu-irtena –hori ez badabilta beti, eta batzuen arabera, fikzioaren eremu zabaletan–.

Esan dezagun literatura hertsienarekin duen harreman estua dela *Paper-festa* honen ezaugarri bereizgarriena. Eta ez bakarrik fikziozko kontakizunak –laburrak batzuetan, besteetan laburragoak– dituelako ardatz, baizik eta baita ere fikziozko literatura egiteko material ugari biltzen duelako bere orrietan. Adibiderik garbienak ditugu apunteak, Lertxundik hantzen sartzeko dituenak liburuaren luze-zabalean, sarri garatzeko proposamen gisara. François Truffauten Hitchcocki buruzko liburu hartan bezala, zine-zuzendari asmatu baten hamar pelikulekin nobela egiteko ideia proposatzen duenean, esate batera –asmo bidenabar benetan azkarra–. Liburu osoa da, azken batean, idazle gai batentzako, are, arpillatzean sinesten duen idazle gai batentzako harribitxia.

Ezen bestela ez baita hain handia Anjel Lertxundiren bi liburuon arteko aldea. Agian lehenak, sorpresa efektuagatik, biribilagoa zelako, ez

fikziozko sailkapena eman arren istorio, kontakizun, narrazio piezak zituelako, kontrapisu egiten zutelako, heterogeneoagoa zelako, osoagoa, bizitza oso bat hartzen zuelako, bigarren honen gainetik jarriko nuke nik. Baina zalantzarik ez dago haren ubera hartuta etorri dela hau ere, hark irekitako bidetik harrapatu gaituela honek. Esplizituki, *Eskarmentuaren paperak*-en jasotako istorio berberak agertzen baitira luze gabe tarteka *Paper-festa*-n, beste erremate batekin, kasurako. Baina, esan gabe ere, *Eskarmentuaren paperak* hartan agertzen ziren ideia batzuk aurkitu ditut tantaka azken honetan. Denekin ez da bat etorri behar, gai, hari, erre, batzuk afekzio faltagatik urrutiko egingo zaizkigu, baina denetarik dago, botika onetan bezala, Gabriel Ferraterrek aipatzen zuen bizitza moralaren gaineko hausnarrerako. Bat bakarrik hemen: edozein esparrutan, baina kritika literarioaz ari gara eta, zorrotza izan beharra dagoela ideia propioekin, besteen ideiekin baino are zorrotzagoa, inor kritikatu nahi duenak bere burua jarri behar du lehendabizi galbahean. Besterenak seinatu ondoren, prest nago noski dagokidan penitentziarako.

Esan dezagun literatura hertsienarekin duen harreman estua dela 'Paper-festa' honen ezaugarri bereizgarriena

## Fikzioa

SALDUENAK

## 1. Ez naiz ni

Karme Jaio. Elkar.

## 2. Mussche

Kirmen Uribe. Susa.

## 3. Paper-festa

Anjel Lertxundi. Alberdania.

## 4. Ilargi horia

Josemari Iturralde. Pamiela.

## 5. Zaindari ikusezina

Dolores Redondo. Erein.

## 6. Gaur zortzi

Carmen Gisasola. Alberdania.

## Ez Fikzioa

## 1. Euskal estatuari bidea zabaltzen

Batzuk. Ipar Hegoa Fundazioa.

## 2. Plazer bat izan duk, Benito!

Pako Aristi eta Mikel Markez. Elkar.

## 3. Independentziaren paperak

Pako Aristi. Erein.

## 4. Moroak gara...

Joseba Sarrionandia. Pamiela.

## 5. Euskal prosa aztertuz-Kritiko berrien ahotsa

Jon Kortazar. Utriusque Vasconiae.

## 6. Zer da artea?

Tolstoi, Lev. Meettok.

LIBURU DENDAK: Elkar, Casa del Libro (Bilbo), Auzolan (Iruñea)

## ERAKUSLEIHOA

IPUINA

## 'Txominen 5 zentzumenak'

Liesbet Slegers. Ibaizabal. 56 orrialde. 13 euro.



## Txominen abentura eta kezka berriak

Zentzumenak oso garrantzitsuak dira Txominen egunerokoan. Begiekin, belarriekin, sudurrekin, mihiarekin eta eskuarekin inguratzen duen mundua ezagutzeko aukera du. Eta gauza pila du bere inguruan ezagutzeko. Txikientzako bilduma hau arrakastatsua izan da hasieratik, eta Ibaizabalek Txominen mundua zabaltzeko bost zentzumenei buruzko liburu honetan. Galderak eta aurkikuntzako jokoak ditu txikienekin ondo pasatzeko.

NOBELA

## 'Gure garaiko heroiak'

Mikhail Juriévitch Lermontov. Elkar. 224 orrialde. Itzulpena: Jose Morales Belda. 15,85 euro.



## Literatura errusiarraren lagina

'Gure garaiko heroiak' 1838tik 1840ra bitartean idatzitako menturazko nobela psikologikoa da. Bost narrazio biltzen ditu eta bertan Petxorin ofizial errusiarrari Kaukasoan gertatutako berri ematen digu Lermontovek. Errusiako prosaren obra klasikotzat jotzen da eta eragin handia izan zuen garaiko gizartean eta geroko literaturan. Lermontov erromantikoa zen, baina errealismoaren bila zebilen, eta 'errealismo erromantikoa' izan zen bilatze horren emaitza.

IPUINA

## 'Bakarrik eta Buztangabe'

Patxi Zubizarreta. Pamiela. 64 orrialde. Marrazkiak: Iokin Mitxelena. 9,50 euro.



## Abandonu birekin hasten den ipuina

Udako oporrak dira, eta afrikar askoren auto pila Iparretik Hegora doa. Furgoneta horietako bat gasolindegian geratu da depositua betetzeko. Baina furgonetakoak joan direnean, neskatala bat utzi dute, ahantzirik. Gero, auto bat gelditu da, eta autokoak abiatu direnean katu bat utzi dute. Eta gasolindegiko gizonak ez daki zer egin neskatala ahantziarekin eta katu abandonatuarekin! Eta zuk, zer egingo zenuke zuk?

## ZALDI EROA



Editorial Iparraguirre S.A.

Zuzendaria: Bingen Zupiria  
Ardura: Iñaki Mendizabal Elordi (mendi@deia.com)  
Koordinaioz lana: Amaia Santana (asantana@deia.com)Diseinua: Jesús Santamaría  
Maketazioa: Naroa Etxebarria  
Portadako argazkia: Ortzadar.  
Lege Gordailua: BI 1720-06


Gehigarri honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · **kultura** · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA

# Astra, elkarlanean egunero sortzen den proiektua

Kulturarako fabrika sozial bihurtu da azkenik Gernikako Astra, arma lantegia izandakoa. Hainbat urtez lanean aritu ostean, berriki ireki ditu ateak. Herritik eta herriarentzako sortutako proiektua da Astra, iragana ahaztu gabe etorkizunari begiratzen diona

 IZARO AULESTIARTE

**A**STRA lantegiak etapa berri bati ekin dio zazpi urteren ostean. Arma fabrika izandako eraikina erabilera sozial eta kulturalerako espazioa da orain. “Guk kulturarako fabrika sozial gisa definitu dugu –argitu digu Astra koordinakundeko Johana Olabarriak–. Baina badakizu zer duen Astrak, bakoitzak nahi duen bezala ulertu ahal duela, baina guztiok dakigula nor eta zer garen. Batzuentzako sormen fabrika izango da, beste batzuek gaztetxea deituko diote, beste batzuek kulturarako lokala... Hori da Astra, bakoitzak nahi eta behar duena, betiere oinarriak errespetatuz”.

Udalerriko industriari izandako loraldiaren eta gainbeheraren ikurra da Astra. Su-armen lantegia izan zen 80 bat urtez, eta 1998an itxi zituen ateak. Gerora, baina, herri mugimenduak definitu zuen eraikin abandonatuaren patuak zer nolakoa izan behar zuen. Orain zazpi urte okupatu egin zuten, herrian zegoen espazio eta lokal behar irtenbide bat eman nahian. “Gernika-Lumon saiakera bat baino gehiago egin dira bai gaztetxe bai espazio sozial okupatuak martxan jartzeko, baina 2005eko ekimen honek beste puntu bat markatu zuen. Garai hartan, Iparragirre rock elkarteak eta IEUP gazte asanbladak batez ere erabaki zuten espazio bat okupatzea zela bidea, eta Astra izan zen aukera”, azaldu du Olabarriak.

2005eko abenduko okupazioaren ostean *desalojoa* etorri zen, eta 2006ko otsailan bigarren okupazioa. Baina azken ekimen horren atzean “ez zeuden soilik gazte edo musikariak; herriko mugimendu sozial eta kulturalak ere okupazioa beharrezkotzat jo zuten, eta mugimenduarekin bat egin”, dio koordinakundeko kideak.


**KONKISTA SOZIALA** Okupazioa zergatik eta zertarako egin zen azaldu asmoz, *Astra Gernikentzako* izeneko kanpaina abiatu eta hiru puntutan jaso zituzten oinarriko eskaerak: Astra publikoa

izatea (herriarena), erabilera sozial eta kulturalerako espazioa izatea, eta Astra proiektua (izatea eta erabilera) parte-hartze prozesuen bidez erabakia izatea. “Zazpi urte eta gero, esan genezake hiru aldarriak bete direla: eraikina subastara atera zenean Udalak erosi zuen, jadanik publikoa zen, herriarena; urteotan garatu diren hiru parte-hartze prozesuen bidez Astraren oinarri filosofikoak, arkitektonikoak eta kudeaketa oinarriak erabaki dira eta bere erabilera soziala eta kulturala da. Beraz, orain arte bidea egin dugula esan genezake”, laburbiltzen du Olabarriak.

Finean, Astra “herritarren konkista soziala” dela diote, “eraikina herritarrek okupatu zutelako, herriak erosi zuelako eta prozesuan parte izan diren guztiak erabaki dutelako. Gaur egun bertako erabiltzaile diren asko ez dira egon zazpi urteotako asanblada batean ere, baina beraiek badakite beren etxea dela. Astra da proiektu bat erakusten duena indarrak eta pentsamoldeak bat eginik guztiontzako ona den zerbait sortu ahal dela. Guztiok guztiontzat”, erantsi du.

Berriki inauguratu dute espazioa. “Beste urrats bat da guretzako. Urteotan garai ezberdinak bizi izan ditugu Astra proiektuaren barruan, eta honako hau bizi berri baterantzako bidea dela esan genezake”. Eraikina eraberritzeko lanak irailean amaituta, ateak abenduan ireki zituen Astra berrituak: “Oso pozik gaude horren berezia den eraikin hau herriarentzako erreperatu delako eta eraberritzeko aukera ere egon delako, beste urte pilatxo bat egin ditzan martxan”.

Eraikina bera ere sinbolikoa da oso, arrazoiz ezberdinak tarteko. “Gernika, Euskal Herriko beste herri asko moduan, krudelkeriak masakraturiko herria izan zen eta historia pasa egiten da, baina ez ahaztu. Sinbologia horren barruan, Astra arma lantegi bat izan zen, pistolak eta bonbak fabrikatzen zituen, beste gauza askoren artean. Eta pistolak eta bonbak izan



**IRUN FACTORY, ABIATU BERRI**

Argazki erakusketa batekin estreinatu berri da Irun Factory, bertako artisten sorkuntzarako eta berrikuntzarako topagunea. Palmera-Monteren kokatutako 263 metro<sup>2</sup>-ko guneak Irungo eta eskualdeko arte garaiakideko proiektuak ekoizteko, hedatzeko eta prestakuntzarako erreferentzia izan nahi du; Bitamin-e Faktoria taldeak dinamizatuta, arte plastikoaren, ikus-entzunezkoaren eta diseinu grafikoaren inguruko ekimenak garatuko dira bertan. Espacio... Por favor, Lau Buru edo Bitamin-e kolektiboak ez ezik, Artitadeto Irungo artisten elkarte, Inwoko Hondarribia, Baiónako Association Les Petits Papiers eta Hazparneko Association Art&Project ere batu zaizkio jada sormen fabrika berriari.

ziren herri hau suntsitu zutenak”, dio Olabarriak. Bada, bonbardaketan zutik geratu zen eraikin bakarrenetariko bat izan zen Astra.

Bestetik, urte askoan “familia askok bertatik jasotzen zuten bizitzeko sostengua eta lan harreman horretan Astrarengandik oso gertu sentitzen dira herritar asko”. “Azkenik –erantsi du–, aipatu eraikin ikusgarria dela, herri erdian, Bastidaren eraikin bat, 2.600 metro karratu, eraso aereoaren babeserako bunker batekin atzean... Eta orain eraikina Gernika-Lumotar guztiona da”.

Ricardo Bastida arkitektoaren diseinua errespetatuz egokitu da eraikina eta bi solairu eraberritu dituzte, 700 metro koadrokoa bakoitza. “Oso eraikin diafanoa da, pareta gutxirekin, zenbat eta egitura zurrun gehiago orduan eta muga-tuago gelditzen baita moldagarritasuna. Gaur egun, arte eta eskulan faktoria dugu, eszenatokia, barra, gune soziala, familia txokoa, gorputz faktoria, komunikazio faktoria, bilera gelak, hacklab-a, erakusketa aretoa, lehen solairuan beste tarima edo eszenatoki mugikor bat... Astran baliabideak daude eta behararen arabera mugitu, aldatu edo egokitu egiten dira, nahiz eta oraindik hasieran gauden eta badakigun gauza asko falta direla txukuntzeko. Musika ekipo bat, proiektoreak, pantailak... baliabideak”.

Eraikina prest izanda, urteotan hitz egin, ezta-









LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · **musika** · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK ·



Talde nafarrak Durangon joko du gaur, Landako Gunean. ORTZADAR



OLATZ PRAT

# Hesian zuzenean, noiznahi eta nonahi

Hesian talde nafarrak bere bosgarren lana argitaratu berri du, orain arteko ibilbidea laburbiltzen

duen zuzeneko CD/DVDa. Martxoaren 2an aurkeztuko dute, Donostiako Kursaal

**O**RAIN arteko urterik hoberena izan da 2012a Hesian talde nafarrantzat. *Hitzetik* (Oihuka-Elkar, 2011) kaleratu zutenetik arrakastak arrakastaren atzetik etorri dira, salmenta onak eta kontzertuak barra-barra.

2013ari ekiteko zein modu hobeagorik lan berri bat baino? Atzo bertan kaleratu zen *Hemen eta orain* zuzeneko CD/DVDa. Bertan, 2012ko abuztuaren Gernikan emandako kontzertuaren grabazioa eta Barakaldon emandako zuzeneko bateko zenbait abesti bildu dituzte, 26 guztira; horrez gain, taldekideei egindako elkarrizketekin osatutako dokumental txiki bat ere sartu dute DVDan. Taldeko abeslari Zuriñe Hildagok azaltzen duenez, “taldeak jada bazeukan nahiko ibilbide eginda eta zerbait desberdina atera nahi genuen, orain arteko lau diskoetako abestiak biltzeaz gain, zuzeneko bat egitearen esperientzia nola ateratzen zen ikusi nahi genuen”.

Oihukarekin argitaratu dute lan berria, *Hemen eta orain* izenekoa: “Hemen eta orain grabatua dela adierazi nahi genuen, kontzertu hartan geundela eta grabazioaren emaitza ere hori izan-

go zela, handik ateratzen zena, han eta orduan egindakoa”, dio Hildagok.

Lan honekin taldearen beraren esentzia agerian gelditzen da. Izan ere zuzeneko da taldearen indarguneetako nabarmenena, oholta gaineko energia eta indarra, eta oholta beheko jarraitzaileekin bizitzen dutena, elkarrekin abestea, oihu egitea eta dantzatzea. Hasieratik landu izan dituzte Euskal Herriko gazteei eta gizarteari eragiten dioten gai buruz, gatazka politikoa eta gai sozialak, kasu. Baina ez dira falta maitasun hitzak edo barne pentsamenduak ere. Horien denen isla da *Hemen eta orain*, zuzenekoan modu zuzenean esandakoen isla.

Lan berezi bati dagokion aurkezpena aurreikusitako sakandarrek, datorren martxoaren 2an 20:00etatik aurrera Donostiako Kursaalera gertara aretoan izango dira. Oro har, plazako eta kaleko taldea izanik, desberdintasun nabarierako bat da areto itxi batean izango dela kontzertua, ez baitira, kafe antzokiez gain, bestelako areto askotan jardun, kalean asko aritu izan badira ere. Ezustez beteriko emanaldia iragarri dute, “zuzeneko batean inoiz egin gabeko gau-

zekin ausartuko” direla adierazi dute. Emanaldi berezi hau prestatzen “lan handia” egiten ari direla onartzearekin bat, gonbita egiten diete jarraitzaile guztiei bertan izan daitezen. Sarrearak salgai jarri dituzte jada [www.fundacion-kursaal.com](http://www.fundacion-kursaal.com) webgunean, 6 euroren truke.

**BATEZ ERE LAGUNAK** Hesianek 2006an hasi zuen bere ibilbidea eta orduetik partaide batzuk joan egin dira eta beste batzuk etorri, 2011. urtean finkatu zela. Gaur egun zazpi taldekide dira: Zuriñe Hidalgo abeslaria, Fran Urias (ahotsak eta gitarra), Xabi Seko (baxua), Aritz Etxeberria (bateria), Aritz Igoa Igotxo (saxoa), Eneko Garziandia (tronpeta) eta Aitor Valcarlos Txamus (tronboia).

*Hemen eta orain* honen aurretik lau disko kaleratu zituen taldeak: *Maite dugu* (autoekoitzia, 2007), *Herriaren oihua* (Gor, 2008), *Borrokatu eta irabazi* (autoekoitzia, 2010) eta *Hitzetik* (Oihuka-Elkar, 2011). Horrez gain, *Euskal Herriak Autodeterminazioa* abestia grabatu zuten 2006an izen bereko kanpainarako, 2008ko Lezoko Gazte Topaguneko abestia ere grabatu zuten, *Zeru gorriko egunak* izenekoa, eta 2011n *Bihotzetik mundura* abestia egin zuten, Boiseko (AEB) ikastolarako.

Horrenbeste urte, entsegu ordu, kontzertu, izerdi eta irribarre elkarbanatuta, edozeren gainetik lagunak direla diote, “lagun koadrila bat gara, neuk esaterako –dio Hildagok–, neure koadrilararekin baino denbora gehiago igaro dut taldekoekin azkenaldian, ordu asko pasatzen dugu elkarrekin. Normala den bezala geure tira-birak izaten ditugu, baina aparteko giroa dugu gure artean eta hori da garrantzitsua”.

Giro horrek, konfiantzak eta lanerako gogo eta ilusioak nabarmen eragin du joan den urteko arrakastan. Taldea bere momenturik gozoenean dagoela esan daiteke. “Iazko urtea oso ondo joan zen eta 2013a ere itxura oso ona hartzen ari da”, Hildagoren hitzetan, oraindik datarik aurreratu nahi ez duten arren, lotzen hasiak dira Kursaalera osten emateko kontzertuak.

## GAUR, DURANGOKO KALERAROCK-EN

Zaleek gaur bertan dute Hesian zuzenean ikusteko aukera. Sarrerak agortuta dauden arren, horietako bat eskuartearen duenak gaur Durangoko Landako Gunean eguerditik aurrera izango den makrojalaldian ikusi ahal izango ditu nafarrak. Betagarri, Arkada Social, Kap, Iheskide, Kaotiko, Gozategi, Gatibu, Vendetta eta Governorsekin batera ariko dira.







# Munduaren sorrera zikina

Etna sumendiak orain daukan zikloa azaldu didate: bi astero galdara magmaz betetzen

zaio, erupzioa botatzen du eta errautsak inguruko herriak estaltzen ditu

**E**TNARI erratza pasatzen dion andrea topatu dut bide ertzean, Fornazzo herrian. Aurreko astean haizeak ekialderantz zabaldu zituen errautsak eta bost zentimetroko geruzaz estali zuen herri hau. Magmaren jarioa, kontinenteen azalaren eraberritzea, orogenia eta horrelako geologiak oso ikusgarriak dira, baina dena zerrri eginda gelditzen da ondoren eta norbaitek pasa behar dio erratza munduaren sorrerari.


“Ohituta gaude”, dio Antoniak. “Gutxi gora behera badakigu noiz tokatzen den eta orduan kanpoan zintzilik dauden arropak jaso, kotxeak gorde eta leihoak ondo ixten ditugu. Baina nekeza da, errautsa zirrikietatik sartzen delako eta kanpoan dena beltzez estalita gelditzen delako”.

Kezka gutxiago dauka Damianok, nahiz eta krater nagusitik askoz ere gertuago bizi den: 1.740 metroan dagoen aterpetxe bateko ardura da (gailurra 3.340 metroan dago). Alpeak behetik gora eta punta batetik bestera eskalatu ondoren, Siziliara etorri zen lanera. Zortzi hilabete daramatza Etnako aterpetxe honetan. Galdetu diot ez ote den aspertzen beti mendi berean egoteaz. Eta berak ezetz: erupzio mordoa ikusi dituela denbora honetan, paisaia etengabe aldatzen doala, eta ez duela mendiz aldatzeko beharrik, etengabe transformatzen den mendi batean bizi delako. Etnaren mapa zehatzak oso azkar zahartzen dira, han eta hemen kolada, konkora eta artesi berriak sortzen zaizkiolako.

Etnak ez du leherketa handirik izaten. Barrunbeetan Hefesto aritzen da lanean, suaren eta metalurgiaren jainko grekoa, ziklope eta erraldoien laguntzarekin ingudeak kolpatzen. Lurra orro batean eta dardarka jartzen dute. Baina Etna ez da lehertzen: jarduera efusioa dauka, magma dario.

Siziliarrek ez dute sumendi arriskuutzat hartzen. Gogaikarri samarra da, baina ez du katastroferik eragiten. “Erupzioa datorrenean aterpetxea jendez betetzen zaigu, denek hurbildu nahi dute ahalik eta gehien magma ikustera”, dio Damiano gidak. “Talde batekin noanean, oso serio jarri behar dut atzera egiteko agintzen diedanean. Kontutan hartzen dut koladak nondik doazen eta haizeak norantz jotzen duen, batzuetan harri txikiak zaparradak erortzen direlako, eta harri horietako batek jotzen bazaitu... Jendeak ez daki arriskua neurtzen”.

Ekaitza, kazkabarra, laino itxia eta errepide bazterrean metro bateko elurra tokatu zait niri, Etnako aterpetxera vesparekin igo naizenean. Arratsaldean ke zutabe oso beltz eta lodi bat ikusi dut zeruan eta hodeiak distira laranja argitu dira: magmaren isla. Hurrengo goi-



## BIDAIA KOADERNOA

ANDER IZAGIRRE

anderiza.com



“Ke zutabe oso beltz eta lodi bat ikusi dut zeruan eta hodeiak distira laranja argitu dira: magmaren isla”

zean sumendian gora paseo bat eman nahi izan dut, baina lainoak ez dit hoge metroa ikusten utzi, pinu eta urki artean. Elurra eta errautsaren geruza zuri-beltza zapaltzean karraska berezia sentitu dut boten azpian, eta hori izan da Etnak eman didan esperientzia bolkaniko guztia. Ia egun osoa zain pasa dut baina zaparradak okerrera egin du.

“Ez zaitetz haserretu”, esan dit Damianok. “Euriak errepide garbitu dizu bidaia jarraitzeko, bestela errautsak ez lizuke hemendik egun pare batean ateratzen utziko”. Eta sumendia ikusi gabe baina sumendiaren hatsa sumatuta joan naiz.

**artez**  
euskara zerbitzua



itzulpenak - hizkuntza aholkularitza - papergintza

944 480 000

posta@artez.net

www.artez.net